

## ***Euskal Herrian geroz eta nekazal ustiategi gutxiago ditugu; batez ere, neurri txikiko ustiategiak dira desagertzen ari direnak***

Euskal Herrian 71.699 nekazaritza ustiategi ditugu, duela 17 urte baino 20.939 ustiategi gutxiago. Desagertzen ari direnak ustiategi txikiak dira, eta bitartean, handiek gero eta pisu handiagoa dute Euskal Herriko nekazaritza ekoizpenean.

Esan bezala, ustiategien kopuruak behera egin du (%22,6ko galera, 17 urtetan), baina gero eta azalera gehiago erabiltzen da laborantzarako. Hots, ustiategi bakoitzeko batez besteko Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE) handitu egin da (%54,1eko hazkundera 1982tik 1999ra). Halaber, 30 ha. edo gehiago hartzen dituzten ustiategiak ugartu egin dira (%36,6 gehiago dira).

Urtekako Lan Unitate (ULU) kopurua ere jaitsi egin da (%23,4 jaitsi da); familiakoen ULUak dira galdu direnak (familiako ULUen %29,0 galdu dira), eta, aldiz, soldatapeko ULUek gora egin dute (1982. urtean baino %33,6 gehiago dira 1999. urtean).

Horrek guztiak, ustiategi handien hazkundera islatzen du: gero eta laborantza jarduera gehiago, baina ustiategi gutxiagoren eskuetan. Geroz eta intentsiboagoa bihurtzen ari den nekazaritza eredu baten berri ematen digute, beraz, datu hauek, eta datorren ostiralean aurkeztu ditugun beste hainbat datuek.

### **Euskal herrialde bakoitzak bere bilakaera du, bai nekazaritzak duen pisuan, baita eredu produktibistaranzko joeran ere**

Euskal Herriko herrialdeek egoera eta joera bereziak dituzte aztertzen ari garen gaiari gagozkiola. Laborantzak garrantzi handia du herrialde batzuetan, eta oso txikia, berriz, beste batzuetan. Adibidez, badakigu nekazaritzak oso pisu handia duela Zuberoan eta Nafarroa Beherean; okupatuen artean nekazaritzan lan egiten dutenak zenbat diren kontuan hartzen badugu (%26,3 eta 21,5, hurrenez hurren), bi herrialde horiek Euskal Herriko (%3,0) eta Europako Batasuneko (%5,3) batez bestekoaren oso gainetik azaltzen zaizkigu.

Ondoren Nafarroa Garaia (%5,4) dator, eta atzetik Araba (%3,1). Kostaldeko 3 herrialdeetan nekazaritzan lan egiten dutenak gutxiago dira (%2aren bueltan). Dena den, Euskal Herriko laborariak herrialdeetan nola banatzen diren aztertzen badugu, Nafarroa Garaia agertzen zaigu guztien buru (han bizi dira Euskal Herriko nekazari okupatuen %36,2).

Horrez gain, datuen arabera, herrialde guztietan laborantza ereduaren bilakaera ildo berean doan arren, esan genezake abiada ez dela bera herrialde guztietan. Datuek iradokitzen dute, nolabait esatearren, mutur batean Nafarroa Garaia dagoela eta bestean Gipuzkoa. Izan ere, Nafarroa Garaian ustiategien kopurua inon baino gehiago murriztu da 1982tik 1999ra (bostetik bi desagertu dira 17 urtetan, %40,3 hain zuzen) eta, aldi berean, besteetan baino askoz gehiago handitu da batez beste ustiategiek erabiltzen duten NAE (%94,9). Beraz, esan dezakegu Nafarroa Garaian beste herrialdeetan baino biziagoa izan dela eredu produktibistaranzko joera azken hamarkadan.

Nafarroa Garaia beste muturrean Gipuzkoa dago. 1982 eta 1999 bitartean, ustiategi kopuruak apur bat gora egin du (%5,3), aldiz, ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE gutxien handitu duen herrialdea da (%28,2).

Tartean, gainerako herrialdeak azaltzen zaizkigu. Nafarroa Garaiko bilakaera bizkor horretara iritsi gabe, baina ildo berari jarraiki, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa ditugu jarraian. Herrialde horietan %30 inguru jaitsi da ustiategi kopurua, eta %55-%72 tartean handitu da ustiategien batez besteko NAE. Ondoren Araba dator (ustiategi kopuruaren %9,1 galdu ditu, eta batez besteko azalera %40,7 handitu da). Gipuzkoatik hurbilen, Bizkaia azaltzen zaigu (ustiategien %5,1 galdu dira han, eta ustiategien batez besteko azalera %40,8 handitu da).

### **Joera bat dator, oro har, Europako Batasuneko joerarekin**

Europako Batasuneko Estatuetan, 1989/90 eta 1999/00 artean, estatu guztietan murriztu da ustiategi kopurua. Epealdi horretan bertan, berriz, herrialde guztietan handitu da ustiategi bakoitzeko batez besteko NAE. Datu horien arabera, gero eta ustiategi gutxiago dago, baina laborantzarako gero eta azalera handiagoa erabiltzen da, eta, beraz, ustiategi bakoitzak batez beste azalera handiagoa erabiltzen du. Hortaz, Europako Batasunean ere, Euskal Herrian bezala, ustiategi handiak nagusitzen ari dira, txikien kaltetan.

- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

**[WWW.datutalaia.net](http://WWW.datutalaia.net)**

- **Datu Talaiak, Gaindegiako** *Estatistika Sailak*, Espainiako eta Frantziako estatuetao nekazal zentsuetan oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoan emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da.
- **Jatorrizko datuak:** Nekazal zentsuak (EUSTAT, INE eta AGRESTE). Europako estatuetao datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo  
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**  
Euskal Herriko Datu Talaia  
[www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)